



---

## ADIERAZPENA

---

### Neurriak hartzeko aukera, boterea eta erantzukizuna duzuen arduradun instituzionalei:

Ez da egia, ez duzue gure osasuna babesteko eta gure bizitzak zaintzeko benetako neurririk hartu. Gehiago esango dugu, hartu dituzuen neurri askok gure buruak zaintzeko aukerarik gabe utzi gaituzte.

Garbitzaileak gara, ospitaletan, adinekoen egoitzetan, administrazio publikoaren bulegoetan, saltokietan edo ikastetxeetan egunero egunero garbiketa lanetan aritzen garenak. Segurtasun neurriak hartu dituzue. Etxera bidali dituzue langile asko, lan baldintzak egoerara moldatuz. Protokolo bereziak ezarri dituzue lantokian geratu direnentzat krisiak irauten duen bitartean lan egiteko. Zuen lana etxetik egitea erabaki duzue. Ez gaituzue neurri horietan sartu. Beti bezala garbitzen dugu, betiko lanabesekin, betiko arriskuei (bai, gure lanak arriskuak ditu egunerokoan) kutsatzearen arriskua gehituz.

Saltokietan kutzazainak gara. Ongi egin duzue autobus eta taxi zerbitzuetan txanponak eta paperezko diruz ordaintzeko aukera kenduz. Pozten gara erabiltzaileen eta gidarien artean segurtasun tarteak ziurtatzeko neurriak hartzeagatik. Guretzat ez dago neurririk ordea. Inoiz baino gehiago egiten dugu lan, esku larruak eman dizkigu enpresak, eta ez leku guztietan. Jendearekin hartueman iraunkorra da, kutsatzeko aukerak bistakoak. Eta etxera bueltatzen gara inolako kontrolrik gabe gure familiak kutsatzera gu lanean kutsatu bagara. Gure soldatak baxuenak dira, bizi baldintzak araberakoak. Guretzat ez dago bigarren etxerik edo bestelako eskaintzarik instituzioetatik.

Zaintzaileak gara, adineko egoitzetan, etxez etxeko zerbitzuan. Etxeko langileak gara. Zaintza funtsezkoa krisi honetan eta bakar bakarrik utzi diguzue. Ez da egia, ez zarete ahal duzuen guztia egiten ari.

Adineko egoitzetako langileak gara. Lana biderkatu zaigu eta arriskuak ezin neurtu. Muturreko egoeran egiten dugu lan eta ez dira kontratazioak egin, ez duzue zaintzaileak zaintzeko neurri bat bera hartu. Lan zama jasangaitzak ziren guzti hau hasi aurretik, eraman ezinak dira orain. Baina ez okertu, gure zama zuek zarete, gure lana infernu bihurtzen duzuenak zuek zarete. Ez dira zaintzen ditugun helduak, ez dira behar dituzten zainketak.

Etxez etxeko zerbitzuko langileak gara. Pertsona askok, helduak edo oso helduak gehien gehienak, gure bisita beste loturarik ez dute gizartearekin. Gu gara zaintzen diegunak, eta gu gara, zuen burugabekeriagatik, euren arrisku nagusia momentu honetan. Ez dizkiguzue lan egiteko behar beharrezkoak ditugun baliabiderik eman. Paperezkoa maskarilla bat eta esku larruak, hori da etxez etxeko langileei eman diguzuen bakarra inoizko osasun krisirik larrienean.



---

## ADIERAZPENA

---

Zaintzea da gakoa, gure burua zaintzea, ingurukoena zaintzea, bere burua zaintzerik ez duenari arreta eta goxotasun berezia eskainiz. Hori da krisi honetatik onik ateratzeko bide bakarra, ongi esan duzue. Krisik behar den lekuan jarri ditu beti izkutatzen eta ixilarazten dituzuen zaintza lanak. Pena horrelako egoera batera iritsi beharra. Tamalgarria hau guztia bukatzen denean berriro ere zuei komeni zaizuen lekura eramaten saiatuko zaretela.

Oinarrizko jarduera ekonomikoa ez den guztia eten egin behar da. Koma ekonomikoaren arriskua politika eta inbertsio ekonomiko egokiek konpontzen delako. Baina osasuna galtzen duenak ez du berreskuratzen. Batzuek, betikoek, beren irabaziak ez galtzeko guk gure osasuna galtzea ez dugu onartuko.

Funtsezkoa ez dena eten eta funtsezkoa dena babestu ezazue behingoz. Oinarrizko jarduera ekonomikoan lan egiten dugunon osasuna babestu behar da. Segurtasun neurriak oinarrizkoak eta funtsezkoak diren lan guztietara iritsi behar dira.

Enpresa erabakietan eta politika publikoetan azken katebegia garen langileok eskubideak ditugu, ez besteak baino gehiago, baina ezta gutxiago ere. Ez gaixotzeko eskubidea dugu, ingurukoak ez kutsatzeko eskubidea dugu, gure lanek dituzten arriskuen aurrean babes neurriak hartzeko eskubidea dugu.

Ez dugu txalorik eskatzen, ez zuenak. Neurriak behar eta nahi ditugu: segurtasun neurriak zorroztea zainketa lanak egin behar dituzten langile guztientzat.

Mendeetan zuen politikekin ezkutatu duzuen hasieratik utzi du agerian koronabirusak. Funtsezkoa diren zerbitzuetan egiten dugu lan. Gure lana behar beharrezkoa da, gu gabe honek ez du funtzionatzen. Horrela izanik, gure lanetan bi gauza errepikatzen dira, beti: baldintzak prekarioak dira, guztiz prekarioak dira. Eta emakumeak gara, gehien gehienak emakumeak gara. Ez da horrela gure txikitako ametsa delako lan hauetan aritzea, guretzat gordetzen dituzuen lanbideak dira.

Ez dugu txalorik eskatzen, sektore feminizatuetako baldintzak hobetzea nahi dugu. Zaintza lanak zaintzarako sistema publiko oso eta egoki baten biden berrantolatzea nahi dugu. Eamkumeak garelako eskubideak murrizten eta ukatzen dituzuela bistakoa egin nahi dugu. Krisi honek atzera bueltarik izango ez duen bide baten hasiera izatea nahi dugu.

Ez dugu onartuko aurreko egoerak berreskuratzea helburu bihurtzea. Ikusitakoak erakutsi du sistema honek ez duela balio. Hartu behingoz neurriak koronabirusaren aurrean eta ireki bideak jendarte honetako benetako gaitzei sendabidea jartzeko. Gaitza sistema da eta gaitz honek sortzen dituen gaixotasunak dira konpondu behar direnak.

KONFINATUAK BAI, ISILIK EZ. LANEAN BAI, BORROKAN ERE BAI.



---

## ADIERAZPENA

---

Ez ditugu gure kritikak albo batean utziko guztiak egin behar dugulako bat gerra honetan. Hau ez da guda bat, hau zuek inposatu diguzuen sistema da. Eta aldatu nahi dugu. Gure burua eta gure eskubideak babestu eta defendatu nahi ditugu. M8an egin genuen eta orain egingo dugu ere, batez ere orain.

Zantzaileak, garbitzaileak, kutzazainak, etxeko langileak gara. Antzera gaudenon zerrenda luzeagoa da eta jarraituko dugu kolektiboz kolektibo ahotsa hartzen. Gure egoeraren berri ematen. Izkutatu nahi duzuen gestio lotsagarria plazara ateratzen.

Lagundu egoera hauek guztiak salatzen, plazara ateratzen, eztabaida sozialean kokatzen. Egiten dugun eskakizunekin ados bazaude batu zaitez interpelazioari. Neurriak hartu ditzaten exijitu arduradun instituzionalei. Bakartuak isilarazten gaituzte, guztiak batera isilezinak gara. Bakar bakarrik ez ezin dugu, batzen bagara geldiezinak izango gara. Zaindu gaitezen. Konfinatuak bai, bakarrik eta isolatuak ez. Etxean bai, isilik ez.

Gora emakumeon borroka!

Euskal Herrian, 2020ko apirilaren 7an